

Bizkaiko Foru Aldundiaren/2020 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 93/2018 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, 2018ko ekitaldian, laneratzeko zailtasun handiak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko pertsonen enplegarritasuna sustatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezartzen dituena. Lan Berri, COVID-19a dela eta hartutako neurriek sortutako egoerara egokitzeko.

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia ... /2020, de 26 de mayo, por el que se modifica el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 93/2018 de 3 de julio, por el que se establecen las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la empleabilidad de personas con especiales dificultades de inserción laboral del Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2018, para adaptarse a la situación generada por las medidas adoptadas con ocasión del COVID-19.

Pasa den urtarrilean, Munduko Osasun Erakundeak (MOE) nazioarte mailako osasun publikoko larrialditzat jo zuen COVID-19 koronabirusak sortutako egoera. COVID-19ak izan duen bilakaerak eragindako egoeraren ondorioz, osasun-arloko agintariak aparteko euste-neurriak hartu behar izan dituzte. Azkenik, martxoaren 11n, MOEk pandemiatzat jo zuen gaitza.

La Organización Mundial de la Salud (OMS) declaró el pasado mes de enero que la situación en relación con el coronavirus COVID-19 suponía una emergencia de salud pública de importancia internacional. La situación generada por la evolución del COVID-19 ha supuesto la necesidad de adoptar medidas de contención extraordinarias por las autoridades sanitarias. Finalmente, el pasado 11 de marzo, la OMS declaró la enfermedad como pandemia.

Europar Batasunean, estaturburuek eta gobernu buruek Kontseilu Europarraren ezohiko bilera bat egin zuten martxoaren 10ean, estatu kideen egoera aztertzeko, eta Europak ikuspegi bateratua behar duela berretsi zuten, baita beharrezkoak diren neurriak hartu, eta azkar jardun behar dela ere. Ildo horretan, Kontseilu Europarrak lau lehentasun identifikatu zituen; haien artean, ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko neurriak hartzea zegoen.

En el ámbito de la Unión Europea, los Jefes de Estado y de Gobierno celebraron el 10 de marzo un Consejo Europeo extraordinario con el fin de analizar la situación en los Estados Miembros y reiterar la necesidad de un enfoque europeo común, adoptando las medidas necesarias y actuando con rapidez. En este sentido, el Consejo Europeo identificó cuatro prioridades, entre las que se encuentran la adopción de medidas para hacer frente a las consecuencias socioeconómicas.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma-egoera deklaratzeko da COVID-19ak sortutako krisi sanitarioa

Mediante Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, se declaró el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria



kudeatzeko. Hirugarren xedapen gehigarrian, sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epe-mugak bertan behera uzten dira, eta epeak eteten. Epeak etenda geratu dira alarma-egoera amaitu arte, eta eusteurriak hartu dira osasun publikoaren larrialdi-egoerari eta pandemiari aurre egiteko, helburua baita gizarte-inpaktua minimizatzea eta jarduera egoera sanitarioa hobetu bezain pronto berreskuratzea.

Egoera horrek eragina du 2018. urteko dirulaguntza lortu duten erakundeetan; izan ere, 2020an zehar egindako laneratzeari justifikatu behar dute.

Aldaketa honen bidez, azken xedapenetako bigarrenean ezarritako indarraldia luzatu nahi da 2021. urtera, erakunde/pertsona onuradunek epe luzeagoa izan dezaten dirulaguntza jaso dezaketen ekintzak egiteko eta haiek justifikatzeko; hala, malgutu egingo dira, ahal den neurrian, oinarrietan ezarritako baldintzen betetzea, baldintzok zailak baitira betetzen alarma-egoeraren ondorioz..

II

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen irailaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Horrez gainera, 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat, genero-ikuspegia

ocasionada por el COVID-19. En la disposición adicional tercera se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. Plazos que se han visto suspendidos hasta la finalización del estado de alarma, así como de medidas de contención ante dicha situación de emergencia de salud pública y pandemia para minimizar el impacto social y facilitar que la actividad se recupere tan pronto como la situación sanitaria mejore.

Dicha situación afecta a las entidades que, habiendo obtenido subvención en el año 2018, han de justificar la inserción laboral realizada durante el año 2020.

Mediante la presente modificación se pretende ampliar el plazo de vigencia previsto en la disposición final segunda hasta el año 2021, a fin de que las entidades/personas beneficiarias puedan disponer de un plazo más amplio tanto para la ejecución de las acciones subvencionables, así como, para la justificación de las mismas, flexibilizando en la medida de lo posible el cumplimiento de los requisitos establecidos en las bases que debido al estado de alarma resultan de muy difícil cumplimiento.

II

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y recogidos en el artículo 3 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Asimismo, se ha tenido en cuenta la perspectiva de género tanto en su elaboración como en su



kontuan hartu da hura prestatu eta aplikatzean, eta 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa aplikatu da.

aplicación, conforme a la Ley 4/2005, de 8 de febrero, y al Decreto Foral 141/2013, de 19 de noviembre.

III

III

Xedapen hau onesteko eskumenari dagokionez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4 eta 17.2 artikuluen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseilua da organo eskuduna.

En relación con la competencia del órgano para la aprobación de la disposición, a tenor de los artículos 17.1.4 y 17.2 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, esta corresponde al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia.

Hori dela bide, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2020ko maiatzaren 26ko bileran azterturik, honako hau

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión del día 26 de mayo de 2020.

XEDATZEN DUT

DISPONGO

Artikulu bakarra. *Aldatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Foru Aldundiaren 93/2018 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, 2018ko ekitaldian, laneratzeko zailtasun handiak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko pertsonen enplegarritasuna sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezartzen dituen. Lan Berri*

Artículo único. *Modificación del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 93/2018 de 3 de julio, por el que se establecen las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la empleabilidad de personas con especiales dificultades de inserción laboral del Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2018*

Honela aldaturik gelditzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Foru Aldundiaren 93/2018 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, 2018ko ekitaldian, laneratzeko zailtasun handiak dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko pertsonen enplegarritasuna sustatzeko diru-laguntzak emateko oinarriak eta deialdia ezartzen dituen:

El Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 93/2018 de 3 de julio, por el que se establecen las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la empleabilidad de personas con especiales dificultades de inserción laboral del Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2018, queda modificado como sigue:

Bat. Honela idatzita geratu da Azken xedapenetako bigarrena, dekretuaren

Uno. La Disposición final segunda relativa a la vigencia del Decreto queda redactada del



indarraldiari buruzkoa:

“Dekretuak 2018, 2019, 2020 eta 2021ean izango du indarraldia.”

Bi. Honela idatzita geratu da 4. artikulua (diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak) 1. apartatuaren lehen paragrafoa:

“1. Diru-laguntza jaso dezaketen ekintzak dira 45 urtez gorako langabeak, iraupen luzeko langabeak, desgaitasuna duten pertsonak, edo bazterkeria-arriskuan dauden lan-merkatuan sartzea helburu duten ibilbideak. Ibilbide horiek Bizkaiko Lurralde Historikoan garatu eta kokatu behar dira, 2018ko uztailaren 1etik 2021eko martxoaren 31ra bitartean.”

Hiru. 4. artikulua (Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak) 3. apartatuaren d) letra honela geratzen da idatzita::

“d) Laneratzea. Laneratzeko kudeaketak diru-laguntzaren erakunde onuradunak berak egingo ditu; ezin izango dira azpikontratu. Prestakuntza-ekintza bakoitzeko, jardueran parte hartu duten pertsonen %15 laneratu behar da gutxienez.

Foru-dekretu honen ondorioetarako, laneratzeak ezaugarri hauek izango ditu:

1) Laneratzea, indarrean den araudiaren mendeko kontratazio bat izango da edozein kontratu-modalitatetan. Laneratzea orobat izango da alta hartzea Gizarte Segurantzaren langile autonomo gisa, ekonomia-ekintzan hartutako altarekin batera.

2) Prestakuntza amaitzen denetik eta 2021eko martxoaren 31ra bitartean, hiru hilabete gutxienez dirauen kontratazioa enpresa bakar batean egingo da.

siguiente modo:

“Tendrá vigencia durante los años 2018, 2019, 2020 y 2021.”

Dos. El párrafo primero del apartado 1 del artículo 4 relativo a las acciones subvencionables queda redactado del siguiente modo:

“1. Tendrán la consideración de acción subvencionable los itinerarios que tengan por objeto la inserción laboral en el mercado de trabajo de personas desempleadas mayores de 45 años de edad, personas desempleadas de larga duración, personas con discapacidad, o en riesgo de exclusión. Dichos itinerarios han de desarrollarse y localizarse en el Territorio Histórico de Bizkaia desde el 1 de julio de 2018 hasta el 31 de marzo de 2021.”

Tres. La letra d) del apartado 3 del artículo 4 relativo a las acciones subvencionables queda redactado del siguiente modo:

“d) Inserción. Las gestiones para la inserción se realizarán por la propia entidad beneficiaria de la subvención, no cabe la subcontratación. Por cada acción formativa se ha de insertar, por lo menos, al 15% de las personas que han participado en la misma.

Características de la inserción a los efectos de este decreto foral:

1) La inserción consistirá en la realización de una contratación bajo cualquier modalidad de contrato conforme a la normativa vigente. También se considerará inserción el alta como persona trabajadora autónoma en Seguridad Social, junto con el alta de Actividad Económica.

2) En el período comprendido desde la finalización de la formación hasta el 31 de marzo de 2021, se realizará la contratación de duración mínima de tres meses en una única empresa.



Nor bere kontura laneratzen denean, Gizarte Segurantzaren langile autonomo gisa hartzen den altak, eta ekonomia-jardueran hartutako altak gutxienez hiru hilabete iraun behar dute.

3) Lanaldi osoko kontratuak egin behar dira, edo lanaldi partzialekoak, baina, partzialetan, ohiko lanaldiaren %50 gutxienez izan behar du lanaldiak, kontratuaren hasiera-egunetik indarraldia amaitu arte.

4) Ikastaroaren %50 bete ez duten parte-hartzaileen laneratzeak ez dira laneratzetzat hartuko d) apartatu honen ondorioetarako.

5) Laneratzeko enpresa batean egin ahal izango da laneratzea, eta, kasu horretan, bete beharrekoa izango da Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuan ezarritakoa (laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duena, horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen); edo enplegurako zentro berezietan, desgaitasuna duten pertsonen kasuan.

6) Laneratzea justifikatzeko gehieneko epea 2021eko martxoaren 31n amaituko da. Epe hori amaitu aurretik formalizatutako kontratuak nahiko izango dira laneratzea justifikatzeko. 2021eko martxoaren 31ren ondoren formalizatutako kontratuek, aldiz, ez dute justifikatuko laneratzea.”

Lau. Honela idatzita geratu da 5. artikulua (Laguntzen zenbatekoa eta muga) 5. apartatua:

“5. Prestakuntzako parte-hartzaileen artean laneratzea aurreikusitako hirugarren pertsonarengatik 4.000 euro adjudikatuko dira, eta hala egiten jarraituko da laneratzea aurreikusitako pertsona bakoitzeko, gehieneko ere, 16.000 eurora arte. Muga hori ibilbide bakoitzean aplikatuko da.

En el caso de inserción por cuenta propia, el alta como persona trabajadora autónoma en Seguridad Social, y el alta de Actividad Económica deberá de tener una duración mínima de tres meses.

3) Los contratos deberán ser a jornada completa o a jornada parcial, siempre que esta represente un mínimo del 50% de la jornada habitual establecida, desde la fecha inicio contrato y durante toda su vigencia.

4) Las inserciones realizadas de personas participantes que no hayan completado una asistencia al curso del 50%, no serán tenidas en cuenta como inserción a los efectos de este apartado d).

5) Dicha inserción podrá realizarse en empresas de inserción, debiéndose cumplir en todo caso lo establecido en el Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, del Gobierno Vasco, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro, o en centros especiales de empleo si se trata de colectivos de personas con discapacidad.

6) El plazo máximo para justificar la inserción finalizará el 31 de marzo de 2021. Los contratos formalizados antes de expirar dicho plazo justificarán la inserción. No justificarán la inserción los contratos de trabajo formalizados en fecha posterior al día 31 de marzo de 2021.”

Cuatro. El apartado 5 del artículo 5 relativo a la cuantía y límite de las ayudas queda redactado del siguiente modo:

“5. Por la previsión de la tercera persona insertada de entre las personas participantes en la formación, se adjudicarán 4.000 euros, y así por cada persona que se prevea insertar se adjudicarán 4.000 euros sucesivamente, hasta un máximo de 16.000 euros. Este límite se aplicará por cada itinerario.



Zenbateko hori ez da sartuko diruz lagundutako laneratze-ibilbideetako ekintza guztiak direla-eta gehienez emango diren 100.000 euroko kopuruaren barruan, eta 2021eko martxoaren 31 baino lehen 14.3 artikuluan jasotako eran egindako kontratuak aurkeztuta justifikatu beharko da.

Bost. Honela idatzita geratu da 13. artikulua (Diru-laguntza ordaintzea) 1. apartatua:

“1. Emandako laguntza epe hauetan ordainduko da:

a) Diru-laguntza ematen den unean, gehienez diru-laguntzaren % 80 ordainduko da.

b) Diru-laguntzaren gainerako portzentajea 2020. urtean ordainduko da, jarduerak garatzeko emandako laguntzaren justifikazioa egindakoan (gehienez, 2020ko azaroaren 30erako); horretarako, 14. artikuluan zehaztutako frogagiriak aurkeztu behar dira.

Justifikazioari buruzko agiriak 14. artikuluan zehaztutako epearen barruan aurkezten ez badira, 34. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako prozedura hasiko da.”

Sei. Honela idatzita geratu dira 14. artikulua (Justifikatzeko era) 3. eta 9. apartatuak:

“3. 2020ko azaroaren 30a baino lehen, eta I. tituluko 1. atalaren babesean diruz lagundutako jardueretarako, lortutako laneratzearen justifikazio-memoria aurkeztu beharko da, ibilbideetako parte-hartzei egindako kontratuen kopiarekin batera (kontratuok Lanbideri jakinarazi behar zaizkio, eta/edo bertan erregistratu), martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-

Esta cuantía no formará parte de los 100.000 euros de subvención máxima, por la totalidad de las acciones que forman parte de los itinerarios de inserción subvencionados y habrá de justificarse con la presentación de los contratos realizados antes del 31 de marzo de 2021 de la forma prevista en el artículo 14.3.”

Cinco. El apartado 1 del artículo 13 relativo al pago de la subvención queda redactado del siguiente modo:

“1. La ayuda otorgada se abonará en los siguientes plazos:

a) En el momento de concesión de la ayuda, se abonará hasta un máximo del 80 % de la subvención otorgada.

b) El porcentaje restante, en el año 2020, tras la aportación del informe sobre la inserción realizada a 30 de noviembre de 2020, mediante la presentación de la documentación justificativa establecida en el artículo 14.

En el supuesto de que la documentación relativa a la justificación no se presentara en los plazos previstos en artículo 14 se iniciará el procedimiento previsto en el artículo 34 y siguientes.”

Seis. Los apartados 3 y 9 del artículo 14 relativo a la forma de justificación quedan redactados del siguiente modo:

“3. Con anterioridad al 30 de noviembre de 2020 y para las actuaciones subvencionadas al amparo del título I sección 1.ª se habrá de presentar la memoria justificativa de la inserción laboral conseguida junto con la copia de los contratos efectuados a las personas participantes en los itinerarios, comunicados y/o registrados en Lanbide, en cumplimiento del artículo 57.1 del Reglamento de Subvenciones,



laguntzei buruzko Erregelamenduaren 57.1 artikulua betetzeko.

2021eko martxoaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da 2020ko azaroaren 30etik aurrera lortutako laneratzeen justifikazioa, aurreko paragrafoan ezarritakoa beteta.

Gainera, 4.3.d) artikuluan adierazitako betekizunak betetzen dituzten kontratuen bidez justifikatutako da laneratzea.”

“9. Emandako diru-laguntzaren bidez lortu diren emaitzen ebaluazioa egiteko, partaide guztien jarraipena egin beharko du erakunde onuradunak; orientazio eta prestakuntza prozesuan parte hartu duen pertsona bakoitzaren txosten bat egingo da, eta, bertan, parte-hartzaile bakoitzaren lan- eta gizarte-egoera deskribatuko da.

Txosten hori aurkeztu beharko da I. tituloko 1. atalaren babesean emandako diru-laguntzak justifikatzeko soilik, gehienez ere 2021eko martxoaren 31rako.”

Amaierako xedapen bakarra. *Indarrean jartzea.*

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean foru-dekretua.

Bilbon, 2020ko maiatzaren 26an.

Ahaldun nagusia / Diputado General

Sin./Fdo.: Excmo. Sr. D. Unai Rementeria jaun txit gorena

aprobado mediante Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.

Con anterioridad al 31 de marzo de 2021 se habrá de presentar la justificación en los términos definidos en el párrafo anterior de las inserciones conseguidas en el período posterior al 30 de noviembre de 2020.

Justificarán la inserción de los contratos que cumplan los requisitos del artículo 4.3.d).”

“9. Para la evaluación de los resultados de la subvención concedida, la entidad beneficiaria deberá realizar un seguimiento a las personas participantes: dicho seguimiento se materializará en la presentación de un informe de cada una de las personas participantes en el proceso de orientación y formación, debiendo describir por cada persona participante la situación sociolaboral de la misma.

Dicho informe habrá de presentarse únicamente respecto a las justificaciones de las subvenciones concedidas al amparo de la sección 1.ª del título I, como plazo máximo para el 31 de marzo de 2021.”

Disposición final única. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 26 de mayo de 2020.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sutatzeko foru diputatua / La diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad

Sin./Fdo.: Ilma. Sra. D. M^a Teresa Laespada andre txit argia.